

GORPUTZARI ETA BIZITZARI KASU EGITEKO LANAK

“Bizitza erdigunean jarri”. Gero eta gehiago entzuten da ekonomia feministaren aldarrikapen asko laburbiltzen dituen esaldia. Baina zertaz ari gara zehazki lelo hori errepikatzen dugunean? Nola eraman ikuspegi hori proiektu edo enpresetara? Ahalegin horren onurak eta ajeak ongi ezagutzen dituzten bost lagunengana jo dugu erantzun bila.



Lander Arretxea Bereziartua
@larretxea

A photograph of a person's profile from behind, looking at a laptop screen. The screen displays three questions in a pixelated, black font against a pink and purple abstract background. The person's dark hair is visible on the left side of the frame.

- > Denbora?
- > Ongizatea?
- > Kolektibizatzea?

Egin dut proba. Ekonomia feministaz galdegin diet lagun eta ezagunei. Askok asmatu dute zerikusia baduen zer edo zer aipatzen: “Zaintza-lanen balio eta garrantziaz jabetzea”, “ongizateari etekinari baino garrantzia handiagoa ematea”, “harremanak eta behar pertsonalak zaintzea”... Ideia zabal horiek praktikara eramane dituzten proiektuen berri ba ote duten galdetuta aldiz, inor gutxi izan da izenik emateko gai. Izan badira, ordea esaldi horiek aintzat hartu eta euren egunerokora eramateko ahaleginetan ari direnak. Zailtasunak zailtasun.

Badaki zerbait horretaz guztiaz Irati Mogollon ikerlari errenteriarrek. Ana Fernandez Cubero lankidearekin batera hainbat kooperatibaren auditoria feministak egin ditu. Ikerketa eta praktika askoren ondoren, esparru gatazkatsu jakin batzuk identifikatu dituzte: denbora, lan-moldeak, erremunerazio eredu eta kolektibizazio gradua. Horiek aztertuz antzematen dituzte prekarizazioa, kontziliazio gatazkak, botere-harremanak...

Dioenez, posible da ekonomia feministaren ikuspegia proiektu konkretutara eramatea, baina horretarako ezinbestekoa da ekoizpen helburuak gorputzen eta bizitzako zikloen aldaketak kontuan hartuz berrikustea. Bestela, bi filosofia desberdinen arteko tentsioa elikatzen da. “Adibidez, ohikoa izaten da kontziliazioaren izenean lanaldi murriztuekin jardutea. Denbora murrizteak, ordea, ez du zertan lan bolumenta murriztea ekarri. Maiz lan kopuru berdina denbora eta soldata murriztazagoetan egitea dakar”.

Workoholismoa: gustuko lanaren tranpa

Logika feminista honetatik datozen praktikak ezartzeko zailtasun eta trabez galdetuta, “workoholismoa” hartu du ahotan Mogollonek. Gustuko dutena haien lan bilakatu dutelakoan, haien identitateak eta nahiak enpleguaren bitartez gauzatzeko dituztenen jokabidea. “Pasioaren izenean auto-esplotazioan bizi dira, nekaturik baina pozik. Jai egunak hartuz gero alferkerian egotearen erruduntasuna sentitzen dute; onena eman nahi dutenez, lanaldi amaigabeak dituzte; diru gutxi irabazi arren, egunen batean egoera aldatuko delakoan daude; eta etorkizuneko egonkortasun horren izenean, etengabe egiten dute lan”. Zabalduta dagoen arren, arazotzat du Mogollonek jokabide hori. Batetik, lan



Kalaka komunikazio agentzian euren emozioak elkarri azaltzeari garrantzi handia ematen diote: “Lana gure errealizatorako bide sendoa da, baina gure bizitza lana baino gehiago da”.

eredu edo logika horri etekina ateratzen dioten sektore pribilegiatuak badaudelako. Bestetik, bizitza, erdigunean jarri ordez, ekoizpen prozesuaren esanetara jartzeko dutelako.

Bestelako traba batzuk ere identifikatu ditu, hala nola: hiper-estimulazioa edo etengabe zerbait egin beharra, eta ordainsariaren gatazka. “Egindako lanagatik dirua eskatzeak erreparatu edo kontraesan handia sortzen digu, are gehiago gure lana ez-materiala denean. Askotan, erruduntasun horren iturria gure jardueraren politikoak jabetu eta aktibismoa ogibide bihurtzeko beldurra da. Baina ikasi behar dugu ordainsariaren kontuarekin mugak jartzeko. Komunitatearen errekonozimendu eta esker onarekin bakarrik oraingoz ezin da ogia erosi edo uraren faktura ordaindu.

Emozioak konpartitzearen garrantzia

Irati Mogollonek gertutik ezagutu duen proiektuetako bat da Ttipi Studio kooperatiba. Hirigintza eta espazio kolektiboen diseinu kolaboratiboetan egiten

dute lan, baita komunitate eta erakundeekin prozesu kolaboratiboetan ere. Maddi Texeiro bertako kidearen arabera, ekonomia feministaren ideia batzuk eramane dituzte euren antolaketa eta harremanetara. Lan-mota eta funtzio guztiek duten garrantziaz ohartzeko direla dio, eta denei balio bera ematen dietela, bai arretari dagokionez, baina baita soldatari dagokionez ere. “Norberaren bizimodua eta lanetik kanpo duen errealitatea ere ongi ezagutzen dugu, asko hitz egiten dugu horri buruz, eta eguneroko jarrera eta talde dinamiketan aintzat hartzen dugu”.

Antzeko bidea egin dute Kalaka komunikazio agentzian. Euren emozioak elkarri azaltzeari garrantzi handia ematen diote, horrek eguneroko harremanetan duen eraginaz jakitun. Lan-ordutegi malguk ere baimendu diete “bizitza erdigunean jartzea”: “Oso pozik joaten gara egunero lanera, eta gure errealizatorako bide sendoa da, baina gure bizitza lana baino gehiago da. Horregatik, gure bizitzaren baitan antola-

tzen dugu lan ordutegia. Kontziliazioak, formakuntzak, gaixoaldiek eta egun motelek beren lekua dute lanaldian". Texeirik aldiz, ordutegi malgua tranpa ere izan daitekeela uste du. "Zaila da enplegua, aisialdia eta zaintzarako denbora bereiztea, eta askotan elkar zapaltzen dute. Zer esanik ez sare sozialek eta e-postek etengabe konektatuta mantentzen bagaituzte".

Administrazioaren papera

Oso bestelako ikuspegia du Katakarak liburu-dendako bazkide eta langile Nerea Fillatek. Ez du uste ekonomia feminista ardatz hartzeko gaitasuna duen proiekturik egon badagoenik, ezta euren ere. "Katakraken saiatzen gara ezinbestekoak behar luketen eskubide batzuk errespetatzen, baina horixe dira, esku-bideak. Denok bete beharko genituzke". Edonola ere, aitortzen du badirela etekinari beharrea, euren ongizateari begiraturaz hartutako erabaki batzuk: taberna eta kantina izan arren, ez dute igande eta jaiegunetan irekitzen, eta aitatasun edo amatasun baimenak beste bi astez luzatzen dituzte.

Erabaki txiki horiek garrantzia handia dutela dio, baina ekonomia feminista benetan ardatz hartzeko, administrazioak ere paper aktiboa izan behar duela. "Gaiari administrazioetik heltzen ez zaion bitartean, oso zaila izango da aldaketa eraldatzaileak proposatzea". Zentzu horretan, baditu hainbat aldarrikapen: batetik, kooperatibetan ere, bestelako egitura juridikoetan bezala, zaintza lanetarako lanaldi murriztua hartzean kotizazio osoa mantentzea. Bestetik, aitatasun eta amatasun baimenak berdindu eta derrigorrezko egitea. "Horrela, kolpetik, kontratazioetako

» **IRATI MOGOLLON, IKERLARIA:**
"Workoholismoa dutenak pasioaren izenean autoesplotazioan bizi dira, nekaturik baina pozik. Jai egunak hartuz gero alferkerian egotearen erruduntasuna sentitzen dute; dena eman nahi horretan, lanaldi amaigabeak egiten dituzte"

» **MADDI TEXEIRO, TTIPI STUDIO:**
"Norberaren bizimodua eta lanetik kanpo duen errealitatea ongi ezagutzen dugu, asko hitz egiten dugu horri buruz; eta eguneroko jarrera eta talde dinamiketan aintzat hartzen dugu"

diskriminazioa leunduko genuke, eta gizonezkoak zaintza lanetan aritzera behartu".

Presa ez da bidelagun ona

Ekonomia feministak ordutegiak eta harremanak lantzeko moduak berrikus-

tea eska dezake, baina ez hori bakarrik. Erritmoak eta proiektuen zikloak ere behar dute beste buelta erdi bat, gutxienez. Adibide ona da Lastotan nafarrena. Bost urte dira Iruñerrian nekazaritza eta formakuntza uztartuz Elkarbizitza Laborategia martxan jartzeko ahalegintan ari direla. Oraindik ez dute lortu, baina gero eta gertuago daude. "Ulertu dugu, orain arte ez bada atera, gauza asko ikasi behar genituelako dela. Horrek lagundu digu frustrazioan eta etsipenean ez erortzen. Ez dugu iparra galdu, nahiz eta goxoki edo tentazio asko izan ditugun. Nahiago izan dugu onura ekonomikoa atzeratu, bidea zuzen mantentzeko. Elkarren zaintzaz gain, gure proiektuaren zaintza ere inportantea izan da. Proiektuaren filosofia mantentzeko, eta horren zutabeak ez botatzeko, uko egin diogu soldatak lehenago lortzeari".

Badirudi soilik gazteenen esku dagoe-la horrelako bideak jorratzea; gero eta zailagoa dela urteak eta ardurak pilatu ahala. Uste hori irauli dute Lastotanen. Nerea Esparza kideak, esaterako, 41 urte eta bi seme-alaba ditu, eta pozez eta ilusioz eutsi dio Lastotan sortzeko asmoari. "Gure bizitzak ez du eztanda egin. Izan ditugu krisiak, baina elkar zainduz eta gure ametsa zein den argi izanda, aurre egin diegu". Haiena omen da elkarbizitza laborategia izango denaren lehen esperimientua, eta harro daude, poliki bezain sendo egin dutelako bidea. "Bide honetan, elkar zainduz, gure bizi erritmoak errespetatuz eta trabak gaindituz ikasi dugun guztiak, balioko digu aurrerago ere". Denboraren joanak eta presa ezak baimendu die jokabideak ongi zaintzea, eta ahuldu beharrea, indartu egin ditu. ■



Euskalduna hitza
Bertakoa bihotza

1981 EKO UDABERRITIK
XARETA-BAZTAN BIDASOALDEKO
BELARRIAK GOXATZEN

ELIZONDON ☎ 948 581 226 · ✉ xorroxin@gmail.com
LESAKAN ☎ 948 638 288 · ✉ xorroxinlesaka@gmail.com

erran.eus/irratia

f xorroxin.irratia @xorroxinirratia